

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

**Donostia Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostia Udaleko Bozeramaileen Batzardeak, 2017ko martxoaren 28an izandako ohiko bileran, aho batez onartu zuen, jarraian transkribatu den Erakunde Adierazpena:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de marzo de 2017, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

"Eskualdeko eta Tokiko Botereen Batzarrak eta Europako Kontseiluko idazkari nagusiaren ijitoekin loturiko gaietarako ordezkari bereziak tokiko ordezkari hautetsiei ijitoek jasaten duten bazterkeriaren aurkako jarrera har dezaten eginiko deialdia aintzat hartuta.

"Tomando nota del llamamiento realizado por el Congreso de Poderes Locales y Regionales y por el Representante Especial del Secretario General del Consejo de Europa sobre las cuestiones relativas a la población gitana e todos y todas las y los representantes locales electos y electas para que adopten una postura clara contra el antigitanismo.

Aintzat hartuta, halaber, Europako Kontseiluko Estatu kideek izenpetutako eta/edo berretsitako giza eskubideen nazioarteko tresnak, bereziki Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta bere Protokoloak, Europako Gizarte Gutuna (berrikusia), Nazio Gutxiengoak Babesteko Esparru Hitzarmena eta arrazismoaren, xenofobiaren, antisemitismoaren eta intolerantziaren aurkako Ekintza Plana eta Adierazpena (Vienako Adierazpena), 1993ko Giza Eskubideei buruzko Munduko Biltzarrak onartuak, eta Erromaniei buruzko Estrasburgoko Adierazpena (2010) eta Ijitoen eta herri ibiltarien inklusiorako Europako Kontseiluaren Ekintza Plana;

Teniendo en cuenta los instrumentos internacionales de derechos humanos suscritos y/o ratificados por los Estados miembros del Consejo de Europa, en particular el Convenio Europeo de Derechos Humanos (CEDH) y sus Protocolos, la Carta Social Europea (revisada), el Convenio Marco para la Protección de las Minorías Nacionales y la Declaración y el Plan de Acción sobre lucha contra el racismo, la xenofobia, el antisemitismo y la intolerancia ("Declaración de Viena") aprobados por la Conferencia Mundial de Derechos Humanos de 1993, la Declaración de Estrasburgo sobre los Romaníes(2010) y el Plan de Acción del Consejo de Europa para la inclusión de la población gitana e itinerante;

Aintzat hartuta arraza bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioaren 1. artikulua, arraza bereizkeriari buruzko definizio hau ematen duena: " [...]jarraian, kolorean, jatorri nazional edo etnikoan oinarrituriko edozer bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehenespen, xede edo ondorio gisa duena giza

Visto el artículo 1 de la Convención de las Naciones Unidas sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial (CERD), que define la discriminación racial como "[...] cualquier distinción, exclusión, restricción o preferencia basada en la raza, el color, el origen nacional o étnico que tenga por objeto o por efecto anular o menoscabar el

eskubideak eta oinarrizko askatasunak berdintasunean aitortzeko, baliatzeko edo erabiltzeko gaitasuna ezabatzea edo murriztea eremu politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean, eta bizitza publikoko beste edozer eremutan. [...]";

reconocimiento, el disfrute o el ejercicio en pie de igualdad de los derechos humanos y de las libertades fundamentales en los ámbitos político, económico, social y cultural de cualquier otro ámbito de la vida pública. [...]";

Aintzat hartuta Arrazismoaren eta Intolerantiaren aurkako Europako Kontseiluaren (ECRI) Politika Orokorreko 13. Gomendioa (2011), antiijitotasunaren eta erromaniaren/ijitoen diskriminazioaren aurkako borrokari buruzkoa;

Teniendo en cuenta la Recomendación de Política General (2011) nº 13 de la Comisión Europea contra el Racismo y la Intolerancia (ECRI) sobre la lucha contra el antigitanismo y la discriminación contra los romaníes/ gitanos;

Aintzat hartuta Europako Kontseiluaren Eskualdeko eta Tokiko Botereen Batzarraren 333. Ebazpena (2011), erromaniak/ijitoak tokiko eta eskualdeko agintarientzako erronka gisa txertatzeari buruzkoa; 366. ebazpena (2014), ijito gazteak partaidetzaren bidez ahalduzteari buruzkoa; 403. ebazpena (2016), estremismo eta xenofobia gero eta handiagoaren eta iheslarien Europako krisiaren testuinguruan ijito herriak eta herri ibiltariak bizi duten egoerari buruzkoa; eta Alkateen Gailurreko Amaierako Adierazpena (2011);

Considerando la Resolución 333 (2011) del Congreso de Poderes Locales y Regionales del Consejo de Europa sobre la inclusión de los romaníes/gitanos como un desafío para las autoridades locales y regionales, la Resolución 366 (2014) sobre el empoderamiento de la juventud gitana a través de la participación, la Resolución 403 (2016) sobre la situación de la población gitana e itinerante en el contexto de creciente extremismo xenofobia y de la crisis de los refugiados en Europa, y la Declaración Final de la Cumbre de Alcaldes (2011);

Ijitoen aurkako bazterkeria arrazismo mota espezifiko bat dela onartuta;

Reconociendo que la discriminación de la población gitana es una forma específica de racismo;

Aintzat hartuta, giza eskubideen nazioarteko tresna horiekin bat, ez dela ahalbidetu behar askatasun politikoez abusatzea arraza, kolore, jatorri etniko edo herritartasuna dela eta esplotatzeko edo kalteak eragiteko, edo arrazoi horietan oinarrituriko aurreiritzien bidez hautesleen begikotasuna lortzeko.

Teniendo en cuenta que, de acuerdo con estos instrumentos internacionales de derechos humanos, no debe permitirse que se abuse de las libertades políticas para explotar, iniciar o causar prejuicios por motivos de raza, color, origen étnico o nacionalidad o con el propósito de tratar de obtener la simpatía del electorado por los prejuicios basados en tales motivos;

Jakitun izanda tokiko eta eskualdeko agintariek, prozesu politiko demokratikoko eragile diren aldetik, beren eginkizun eta erantzukizun berezien artean dutela plataforma bat ematea eta hainbat ikuspegi txertatzea erabaki politikoak hartzeko

Consciente de que las autoridades locales y regionales, como actores del proceso político democrático, tienen entre sus tareas y responsabilidades especiales proporcionar una plataforma e integrar diferentes puntos de vista en el proceso de toma de decisiones políticas,



prozesuan, hala, gizarteari aukera emanda interes eta iritzi gatazkak hainbat gizarte talderen artean ebazteko, eta horretarako elkarrizketa erabilita, eta ez bazterkeria eta gatazka; eta hainbat mailatako ordezkariak hautatzea prozesu politikoan aktiboki parte har dezaten;

Erabat sinetsita gutxiengo talde etnikoen prozesu politikoko ordezkaritza, eta, bereziki, ijitoena eta herri ibiltariena, prozesu demokratikoko berezko zati dela, alderdi politikoak gizartearen isla baitira, edo izaten saiatu beharko bailukete;

Aurreko guztiagatik, Donostiako Udalak honakoa erabaki du adierazpen honen bidez:

1. Giza eskubideak eta printzipio demokratikoak babestea, eta ijito herriaren eta herri ibiltarien aurkako edozer diskriminazio, indarkeria, zigortze, gorrotatzera bultzatze eta gorroto diskurtso mota baztertzea, baita beste edozer antiijitotasun mota ere.

2. Jatorri etniko edo nazional desberdineko pertsonen artean etsaitasuna edo banaketa pizten edo bultzatzen edo bultzatuko edo eragingo dutela espero den ikuspegiak edo jarrerak erakusteari edo argitaratzeari uko egitea, edo besteek argitara, bana edo babes ditzaten galaraztea, eta konpromisoa hartzen dut gure hirian gerta daitezkeen ijito herriaren edo herri ibiltarien aurkako edozer sentimendu edo jarrera irmotasunez tratatzeko.

3. Uko egitea edozer mailatan arrazagatiko edo etniagatiko aurreiritziak edo arrazagatiko gorrotoa bultzatzen duen edo eragin nahi duen edozer alderdi politiko edo tokiko agintaririkiko edozer aliantza politikori edo lankidetzari.

permitiendo así a la sociedad resolver los conflictos de interés y de opinión entre diversos grupos sociales a través del diálogo y no a través de la exclusión del conflicto; y seleccionar representantes a distintos niveles para su participación activa en el proceso político;

Convencido de que la representación de los grupos étnicos minoritarios, en especial la población gitana e itinerante, en el proceso político forma parte integrante del proceso democrático, puesto que los partidos políticos son o deberían tratar de ser, un reflejo de la sociedad;

Es por todo ello, que el Ayuntamiento de San Sebastián acuerda mediante la presente Declaración Institucional:

1. Defender los derechos humanos y los principios democráticos y a rechazar cualquier forma de discriminación, violencia, hostigamiento, incitación al odio y discurso de odio contra la población gitana e itinerante y cualquier otra forma de antigitanismo.

2. Negarse a mostrar, publicar, o hacer que se hagan públicos o se distribuyan o apoyen en modo alguno puntos de vista y posiciones que susciten o inciten, o pueda esperarse que alienen o inciten la hostilidad o la división entre personas de distinto origen étnico o nacional, y me comprometo a tratar con firmeza cualquier sentimiento y comportamiento en contra de la población gitana e itinerante en nuestra ciudad.

3. Abstenerse de cualquier forma de alianza política o de cooperación, a todos los niveles, con cualquier partido político o con autoridades locales y regionales que inciten o traten de provocar prejuicios raciales o étnicos y odio racial.



Idazkari Nagusia
Secretario General

4. *Ijito herriak eta herri ibiltariak demokraziaren maila guztietan ordezkari bidezkoa izatearen alde borrokatzea, tokiko eta eskualdeko agintariak erantzukizun berezia izango dutelarik talde horietako hautagaien aukeraketa bultzatzeari eta babesteari begira, hala eginkizun politikoak eduki ditzaten tokiko eta eskualdeko mailan.*

4. *Luchar por una representación justa de la población gitana e itinerante en todos los niveles de la democracia, con una responsabilidad especial para quienes están al frente de las autoridades locales y regionales que es la de estimular y apoyar la selección de candidatos y candidatas de estos grupos, para que ocupen funciones políticas a nivel local y regional.*

5. *Konpromisoa eta neurriak hartzea tokiko edo eskualdeko agintarientzat lan egiten duten pertsona guztiak kontziente direla eta une oro aurrez aipaturiko printzipioekin bat jarduten dutela* *bermatzeko*.

5. *Adoptar el compromiso además de tomar las medidas oportunas para garantizar que todas las personas que trabajan para las autoridades locales o regionales sean conscientes y actúen en todo momento de acuerdo con los principios antes mencionados*".

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2017ko apirilaren 7an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 7 de abril de 2017.

**IDAZKARI NAGUSIA -
EL SECRETARIO GENERAL:**



Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga

**ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE:**


Eneko Goia Laso